

## Pakea Bizkaiak espedizioaren bigarren etapari ekin dio

*Unai Basurkok kapitain duen belaontziaren tripulazioa abenduaren 2an, igandean, iritsi zen Bahía Blancako White Ingeniariaren portura (Argentina). Bertan tripulazioko kide batzuk aldatu dira eta Antartikako Penintsula helmugatzat duen espedizioaren bigarren etapa hasi da.*

Pakea Bizkaiaren tripulazioa igandean, abenduaren 2an, iritsi zen Bahía Blancako White Ingeniariaren portura. Bertan, “Unión Vasca” Euskal Etxeko kideez gain, tripulatzaile berriak zituzten zain. Horrela, espedizioaren bigarren etapari ekin diote. Etapa horretan Unai Basurko kapitain duen belaontzia Antartikara iritsiko da.

Bahía Blancan belaontzitik jaitsi dira Ane Alberdi biologoa, UPV-EHUko ikasle diren Danel Gomendiourrutia eta Toni Fiol, Asier Hernandez irakaslea eta Javier Diez kameralaria. Marta Duch (Katalunia) nabigatzaile profesionalak, UPV-EHUko El Saltillo ontzi-eskolako kapitaina den Mikel Lejarzak (Bizkaia), Alvaro Mozosek (Galizia), merkantzia-ontziterian aditua, eta Xabier Urrestik (Gipuzkoa), argazkilaria eta Olatu ontziko patroiak, hartu dute beraien lekua. Horiez gain, nabigazioaren zati batean Clara Iachetti biologo argentinarra igoko da, konkretuki Punta Arenaseraino (Txile). Abenduaren amaieran, tripulatzaile berri bat izango du Pakea Bizkaiak, Kepa Acero surflari profesionala, hain zuzen ere.

Tripulazioa Bahía Blancan izango da abenduaren 5 arte, gero Puerto Madrynera zuzentzeko. Astelehenean, abenduak 3, ate irekien eguna antolatu zen. Bertara ehun bat persona gerturatu ziren. Bisiten ondoren, bi tripulazio taldeak “Unión Vasca” Euskal Etxera abiatu ziren Euskararen Eguna ospatzeko. Abenduaren 4an, 19.30ean Unai Basurkok hitzaldia emango du Euskal Etxean. Asteazkenean Puerto Madrynerantz abiatuko dira espedizioarekin jarraituz.

### **Necochea bisita**

Pakea Bizkaia Necocheatik Bahía Blancarantz abiatu zen. Necochean, Ikastola eskolako arduradun eta ikasleekin egoteaz gain, Euzko Etxea Euskal Etxeko partaideekin eta Vito Dumas nautika taldearekin ere izan ziren. Oso harrera ona egin zieten Euskal Etxekoek pasa den azaroaren 28an (asteazkena) iritsi zirenean. Ostegun goizean, Ikastolako ikasleak izan ziren Pakea Bizkaia eta hezkuntza-proiektua ezagutzen lehenengoak, izan ere, ontzia bisitatu zuten eta tripulazioaren hitz egin.

Ondoren, Basurkok “De la Competición a la Educación” hitzaldia eman zuen Euskal Etxean. Gainera, Ikastolako ikasleek Pakea Bizkaia proiektuaren inguruan egindako lanak ere aurkeztu zituzten. Pakea Bizkaiaren helburuak, besteak beste, ingurumenarekiko sentsibilizazioa, ozeanoz bestaldeko hiriekin erlazionatzea eta bela ezagutaraztea dira.

Ostiralean, Unai Basurko eta Pakea Bizkaiako Hezkuntza koordinatzailea, Andrea Ruiz Ikastola bisitatu zuten, Xabier Zubillagak bultzatutako zentroa ezagutzeko. 2009an sortu zen, 32 ikasle zituen orduan eta gaur egun, ordea, 160. Zentroa euskal kultura zabaltzeko gune izan nahi du.

Egun berean, 50 bat hiritarrek belaontzia bisitatu zuten, ate irekien eguna antolatu baitzen. Tripulazioa agurtzeko, afari-dantza antolatu zen ostiralean eta horretan Euskal Etxeko “Gazte Alai” taldeak dantza egin zuen. 300 bat pertsonak parte hartu zuten horretan.

## Bigarren etaparen hasiera

Bigarren etapan, Bahía Blanca utzi ostean, Pakea Bizkaia Valdes Penintsulara abiatuko da. Unescok gizon-emakume guztien ondare naturalizat jo du Valdes Penintsula. Bale franko australen populazio ugaltzaile handienetakoa jasotzen du eta planetan baleak begiztatzeko leku nagusi eta garrantzitsuenetakoa da. Horrez gain, beste askoren artean, izurdeak, pinguinoak, itsas elefanteak eta hainbat hegazti ikusi daitezke. Hurrengo geldialdia Punta Arenas izango da, Magallaneseko itsasertzean kokatuta dagoen Txileko hiria. Ondoren, abenduaren amaieran, Ushuaia, “munduko hiririk australena”, bisitatuko dute. Bertan tripulazioa Antarktiar Penintsulara saltoa emateko prestatuko da. Argentinako hiri horretan Kepa Acero surflari profesionala igoko da, Antarktiar Penintsulan olatu bat hartzeko bere “5 Mares” (Bost Itsaso) proiekturen barne.

Pakea Bizkaia Hornos Lurmuturra zeharkatuko du, Txileko hegoaldean. Drake igarobidearen ipar muga markatzen du. Drakek Amerika Antarktidatik banatzen du eta Ozeano Pazifikoa Atlantikoarekin elkartu. Urte askotan zehar Hornos Lurmuturra belaontzien ibilbideen (munduan zehar salerosketan zebiltzanak) artean mugarri nagusietako bat izan zen, nahiz eta, lurmuturraren inguruko urak nahiko arriskutsuak diren, izan ere, haizea indartsua ibiltzeaz gain, olatu eta icebergen presentzia dago ere. Panamako Kanalaren irekiera dela eta, nabigazioak behera nabarmen egin zuen. Hala ere, gaur egun oraindik, ur horietan nabigatzea erronka nautiko handitzat jotzen da.

Horrela, Pakea Bizkaia Antarktiar Penintsulara iritsiko da, kontinente zuriko aberastasun biologiko handiena duen eskualdera. Tripulatuzaileek elur eta izotzez beteriko mendi paisaiak, ehundaka glaziar eta iceberg ikusiko dituzte udarako antarktiar ur hotzetan. Hegazti espezie ezberdinak itsas txakur, itsas otso, bale eta orkekin batera bizi dira habitat berean. Antarktiar Penintsulatik Pakea Bizkaia Bilborako itzulera bideari hasiera emango dio, lehendabizi Ushuaiara itzuliz. Bertan, bigarren tripulazio aldaketa egingo da eta hirugarren etapari hasiera emango zaio.

### Informazio gehiago eta elkarrizketak:

Komunikazio Atala

Nagore Anabitarte- Cristina Martín

Tel. 00 34 943 50 39 55- 688 661 690

e-mail: [comunicacion@pakeabizkaia.com](mailto:comunicacion@pakeabizkaia.com)

Informazioa, irudiak eta bideoak: [www.pakeabizkaia.com/ftp](http://www.pakeabizkaia.com/ftp)